



7zerdi patsetan

Pedro Horrillo: “Marmoladak liluratu nau”

Aurreneko denboraldia du txirrindulari profesionalen artean eta dagoeneko Paris-Roubaix, Milan-San Remo bezalako lasterketa garrantzitsutan korritzeaz gain, Italiako Giroan ere egon da. Giroko etapa batean, denboraz kanpo iristeagatik, etxera bidali badute ere, pozik da egindako lanarekin eta hurrengo lasterketei begira burubelarri dihardu lanean.

DROGETENITTURRI- ZER MODUZ DOAKIZU ORAINGOZ DENBORALDIA?

Pedro Horrillo- Momentuz pozik nago egindako lanarekin. Badago zer hobetu, baina maila-aldaketa kontutan izan behar da. Ihesaldietan eta taldearentzat gogotik lana egitea egokitu zait.

D.- TALDEA BERRIA IZAKI, EMAITZEN MENPE EGONGO DA...

P.H.- Denboraldi hasieran, lasterketa bat irabazi genuen eta horrek lasaitu egin gintuen. Ondoren, tarte batean izan zen krisialdi bat baina nagusiak lasai dira. Taldeak talde-itxura ematea da garrantzitsuen.

Tour-erako txartela lortzea litzateke saririk onena.

D.- PRINTZPIOZ EZ ZINEN GIRO-RA JOATEKO...

P.H.- Bai, hala da. Errioxako Itzulia amaitu ostean, Euskal Bizikleta nuen ondorengo lasterketa. Taldeko kide bat ordea, gaixotu eta neuri egokitu zitzaidan hura ordezkatzea. Gorputzaldi onean nengoen une hartan.

D.- ZEIN IZAN DA ZURE EGINBEHARRA GIROAN?

P.H.- Askotan itzaleko lana egitea egokitu zait. Taldearentzat ura

ekarri, esprinak prestatu eta ihesaldietan argi egotea. Askatasun osoz aritu naiz, inolako presiorik gabe.

D.- IHESALDIREN BATEAN ERE EGON ZARA.

P.H.- Ihesaldirik garrantzitsuen San Marinoko etapan izan zen. 180 kilometro egin nituen beste 14 txirrindularirekin. Hala ere, helmugarako 15 kilometro falta zirela harpatu ninduten.

D.- BIZIKLETATIK JEISTEA ERE BURURATUKO ZITZAIZUN...

P.H.- Bai, etapa bat baino gehiagotan. Nik adibidez, Marmolada igo-

PATXI TABERNA

Gau eta egun

Alde zaharreko betiko taberna



DISKAK

nikiak

bideoak

MUSIKA-LIBURUTEGIA

eta abar...



MIGUEL Harategia



T
X
O
R
I
Z
O
A
K

O
D
O
L
O
S
T
E
A
K

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA (Bizkaia)

DROGETENITTURRI

tzen oso gaizki pasatu nuen. Une horretan burua hotz izan behar izaten da, buruak lan handia egiten baitu.

D.- ZEINTZUK DITUZU ONDORENGO LASTERKETAK?


P.H.- Giroko erritmoa aprobe-txatu nahiko nuke. "Ruta del Sur" (Frantzian) egin genezake, baina ez dakigu oraindik. Ondoren, Estatuko Txapelketa eta Espainiako Itzulian egon naiteke gorputzaldi onean baldin banago, eta talde buruak hala

erabakitzen badu.

D.- ZERBAIT GEHITU NAHI?

P.H.- Eskerrak eman nahi dizkiet jarraitu nauten guztiei, eta esan baita ere, txirrindularientzako lokal bat geureganatu dugula Santa Anan, baina egokitze lanak sustatzeko, diru premia handia eta jendearen laguntza behar izango dugula.

*Testua: Asier Ibaibarriaga
Argazkiak: Santos Vega*



TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko




**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

SAN ANTONIO

Izelaieta, 40 Tfnoa. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tfnoa. 17 38 40

ERMUA

Harategia



M. LAZKANO

Bertoko Okelak
Geure Baserrian Hazitako Txalak
Geuk gizendutako abeltzantza
Merkatua, 36-37 zbk.k - Tfnoa. 17 05 84
Ermua

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11